


I.6 URTEBETETZE-EGUNA

URTEBETETZE-EGUNA

Lararen urtebetetzea da eta bere aitak kiwi tarta bat gin du. Tarta irudian dagoen bezala zatitu du.



01

Ondoren duzun zatia oraindik ez dute jan.



Zein zatikik adierazten du oraindik jan ez duten tarta zatia?

- A. $1/4$
- B. $1/3$
- C. $1/2$
- D. $3/4$

02

Lararen aitak 6 pertsonentzako tarta egiteko osagai hauek erabiltzen ditu:


- 1 kiwizko jogurt
- 250 g irin
- 100 g azukre
- 200 g gurin
- 1 kiwi

Gaur 18 pertsonentzat prestatu nahi du. Zenbat gramo irin behar izango du?

- A. 250 g
- B. 500 g
- C. 750 g
- D. 1000 g

03

Lararen lagun batek beste tarta bat ekarri du eta simetrikoa da. Hurrengo irudietako batean tarta horren erdibanaketa erakusten da.



Adieraz ezazu zein tartak dauzkan bi aldeak simetrikoak.

- A. A tarta.
- B. B tarta.
- C. C tarta.
- D. D tarta.

04

Jaian, hiru hurrek, bakoitzak, **25 cl**-ko bi freskagarri edan dituzte.

Zenbat litro freskagarri edan dute guztira?

- A. 1 litro.
- B. 1,25 litro.
- C. 1,5 litro.
- D. 2 litro.

5

Jaian 14 pertsonen pizza jaten dute. Bakoitzak pizza baten heren bat jaten du.

Zenbat pizza behar dute?

- A. 4 pizza.
- B. 5 pizza.
- C. 7 pizza.
- D. 14 pizza.

06

Duela hiru urte, osaba-izebek urte bateko txakur bat oparitu zioten Larari bere urtebetetzean. Txakurren bizitzan urte batek gizakien zazpi urte balio ditu.

Pertsona baten zein adina da Lararen txakurra duen adinaren baliokide?

- A. 7 urte.
- B. 14 urte.
- C. 21 urte.
- D. 28 urte.

07

Lararen aitak 1,5 litroko botila bat ur ireki du eta likidoak 0,5 litroko pitxerretan banatu du . Pitxerra bakoitzeko ura da botilaren zatiki bat.

Zein da zatikia?

- A. $\frac{1}{2}$
- B. $\frac{1}{3}$
- C. $\frac{1}{4}$
- D. $\frac{1}{5}$